

GURASOENTZAT DEKALOGOA

1. Haurrek ezin dute ikastolara joan covid sintomak badituzte, hala nola:

- * 37 gradutik gorako sukarra
- * Eztul idorra
- * Eztarriko mina
- * Arnasa hartzeko zailtasuna
- * Beherakoa
- * Usaimenik edo dastamenik ez izatea.

2. HH2-HH3ko ikasleak, egokitzapen garaian, etxetik tenperatura hartuta etorri behar du. Egokitzapena bukatu ondoren, gainotzekoek bezala, tenperatura ikastolan hartuko zaie.

3. Pertsona bakarra joango da ikastolara ikaslea laguntzera, eskola-egunaren hasieran edo amaieran, eta, ahal den neurrian, pertsona bera izango da beti.

4. Guraso/laguntzaileak ezin izango dira inguruan geratu umeak utzi ondoren.

5. LH1etik DBH4ra haur guztiek izan beharko dute beren musukoa, eskola-egunean erabiltzeko higie-ne-baldintzak bermatuko dituena.

6. Familiak lankidetzan arituko dira ikastolarekin oinarrizko higie-ne-ohiturak babesteko eta errazteko. Seme-alabekin gai hauek jorratzea lagungarri izango litzaiguke:

- ikastolako seinaleak errespetatzea
- musukoa erabiltzea
- eskuak garbitzea
- komuna egoki erabiltzea eta txukun mantentzea
- bizikidetzat-talde egonkorreko kide izatea

7. Guraso/laguntzaileak ikastolan sartu ahal izateko (tutorearekin bildu...), alde z aurretik hitzordua eskatu beharko du.

8. Ikasle batek sintomak baditu ikastolan, familiari jakinaraziko zaio eta familiak osasun zentroarekin jarri beharko du harremanetan. Komeni da kontaktu telefonoak eguneratuta daudela ziurtatzea.

9. Ikasleak sintomak baditu etxean, familiak tutorea jakinaren gainean jarriko du eta aldaketa esanguratsuak jakinaraziko dizkio.

10. Familiak, ikasleak ikastolatik kanpo egiten dituen eskolaz kanpoko jarduerari buruzko informazioa emango dio ikastolari, hala eskatzen bazaio.

11. Ikasleen gurasoek edo tutoreek eremu emozionalari buruz egoki deritzoten informazio guztia helaraziko diote beren semearen edo alabaren tutoreari, eremu horretan COVID-19 testuinguruari lotutako gabezia/zailtasunen bat aurreikusten denean.

***Informazio hau etengabe eguneratuko da egoerak horrela eskatzen badu. (Aldaketak egiten diren bakoitzeko jakinaraziko zaizue)**